

## Sanjosetako bertso-saioa hilaren 17an

Martiaren 17an, domekaz, izango da aurten sanjosetako bertso-saioa Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Arrastiko 18:00etan hasiko da saioa. Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, Igorreko Udalaren laguntzeagaz, puntako bertsolariak hartzean dabe parte urtero-urtero udabari ateetan egiten dan saio honetan. Miren Amuriza berriztarra, Onintza Enbeita muxikarra, Unai Iturriaga durangarra eta Aitor Sarriegi beasaindarra izango dira aurten bertsoan. **16. orrialdea**

**SAN JOSETAKO  
BERTSO SAIOA '24**  
Martxoak 17, 18:00etan

# Martiaren 22an pasauko da Korrikaren 23. edizinoa Zeberio eta Arratiatik

Zeberiotik sartuko da eguerdiko 13:39ak aldera eta Artea, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre, Dima eta Igorretik pasata Lemoatik urtengo da 17:38ak inguruan.



**K**orrika herritik pasetan dala ospatuko dabe herriotan, lasterketea pasau ostean, musikea eta janagaz. Umeentzako tailerrak, kale-jirak eta jantzak egongo dira egun horretan. Bertatik pasetan ez dan herrietan, Korrika Txikia antolatu dabe eta ospakizunak be egongo dira euskerea jai giroan eta harro aldarrikatzeko.

Aurreko eta osteko egunetan be, Korrika Kulturalak hainbat ikuskizun eskainiko ditu Euskal Herri osoan eta baita gurean be. Beste batzuen artean, Azterketak Euskeraz omenduen gaineko *Oihaletxea* dokumentala ikusi ahal izango da Lemoan, hilaren 16an. BEGITUKO lekukoa, irakurle batek eroango dau. **12. eta 13. orrialdeak**

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Banku-bulego sarearen erdia galdu da EAEn 2008tik hona

Atzera bueltarik ez daukan joera orokorra da baina eragina desbardina da uri eta herri txikietan. Izan be, bulego edo kutzazain bat kentzeak, bakarra bada, zerbitzu barik itxiko dau herria. Hori gertatu zan Bedian. Arantzazun eta Artean ez dago ez bulegorik ez kutzazainik. **8. eta 9. orrialdeak**

### IGORRE

## 1937an gerran galdutako Igorreko baten gorpuzkien bila

Patxi Urquiri Gorostiaga Saibigainen desagertu zan 1937ko aprilaren 14an, bataila gogor baten. Mendiaren magalean dabiz Aranzadikoak indusketak egiten. Nerea Argiñe Atutxaren amaren osabea zan eta DNA lagina emon dau, osabearen hazurrak topetako esperantzaz. **5. orrialdea**

### ZEBERIO

## Aurrekontuak onartu dira Zeberion

Galdetegi baten bitartez herritarrek holan eskatuta, udal lokalak egokitu eta zerbitzu barriak emon ahal izateko aprobetxetako diru partida garrantzitsua gordeten dabe 2024ko Zeberio udal kontuek. Horrezaz gainera, auzotako bideak konpondutea eta umeentzako parkea handitutea dira aurreikusten diran beste proiektu batzuk. Kultura eta kirol alkarteak diruz lagunduteko be diru partida garrantzitsua dago. Kontuon arabera, guztira 1.797.000 euro kudeatuko ditu Udalak.

Martiaren 7an onartu ziran aurrekontuak, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. **7. orrialdea**

## IZEN EMATEA 24-25

### eingo eskola

TRIKITIXA - PANDEROA - KANTUA - DANTZA

umeak 5-7 urte

gazteak 8-18 urte

helduak 18tik aurrera

[eingotar@gmail.com](mailto:eingotar@gmail.com)

TEL: 679 417 353

Sabino Arana 13 - IGORRE

# Literatura txokoa

## DESPUÉS DEL IMPERIO. ENSAYO SOBRE LA DESCOMPOSICIÓN DEL SISTEMA NORTEAMERICANO (I)

Emmanuel Todd historialari, demografo eta antropologo frantsesak, aspalditxoko (jatorrizkoan 2002koa) saiakera mamitsu honetan adierazo lez, Amerikako Estatu Batuak lehen konponbide, eta askatasun politikoa eta orden ekonomikoaren bermatzaile izan ostean, azken mende erdi honetan nazioarteko anabasaren eragile gero eta kezkarriago bihurtu da, gatazka eta ziurtasun ezaren elikabide irmoa izatera jo dau. Endemas, 1991tik Sobiet Batasuna arerio (Gerra Hotza) eta kontrapisu izateari itxi eutsanetik, hau da, superpotentzia bakartzat bere burua koroatu ebanetik.

Toddek bilakaera horregaz

batera aldi bereko gainberaldian doalako tesia aurkeztu dau hemengo saiakera trinkoan, horretarako, erreferente askoren bibliografia, datu ugari eta grafiko bidez, hainbat estatubatuar *stablishment* barruko analisten, aurkariak baztertuz, eretxiari lotuta, barbarako, Paul Kennedy eta Robert Gilpin-ek, ekonomikoa, Zbigniew Brzezinski eta Hery Kissingerrek (hamarkadetan AEBko administrazioaren sano eragile eta estrategia poderetsua beratu), jokabide militar eta diplomatikoa, eta Francis Fukuyama, azken honen *Historiaren amaierako* (historiak badauka zentzunik, ze demokrazia liberala da eta, helmuga) tesiei atxiki

jako, gehienbat. Halaber, Michael Doylearen tesiaren arabera, "demokrazia liberalen arteko gerra ezinezkoa da" pentsakereari be. Danak be, mundu populatu eta garatuagoan estatubatuar administrazioak erakutsi dauan podere erlatiboaren errukibako gixtutea kudeatu beharraz dinosku antropologo frantsesak. Toddek "Egiaren ondo-ondoan dago egiaren aurkakoa" Sacha Guitryren esaldia aitatz begitaratu deusku, ahalgunetan demokrazia aurreraka, sendoetan atzerakadan esan guran edo.

Munduko herrialdeen alfabetatzeak, protestantismoa motorra izanik, (oinarrian, Biblia fededunak irakurri behar daua

gogoan izan abadearen bitartekaritzarik barik) 2030erako osotuzat uste dau, idazketea asmatu eta 5.000 urtera, ugalkortasun tasak urritzea; modernizazio bideko transizino krisialdiak (Cronwell-en garaian katoliko-protestanteen arteko gatazka odoltsuak Ingalaterran, Sobietar eta Frantziako Iraultza, AEBko Sezesino gerrea (620.000 hildako, Vietnam-en 58.000), modernizazioan murgilduta dabilzan islamdar herrialdeetan gaur egun (datozan urteetan Saudi Arabia eta Pakistanen izango dalakoa aurikusten dau), Yugoslaviako zatiketea...) eta sistema familiarak (*L'Origine des systèmes familiaux*) dira, besteak beste, Toddek bere dozentatik gorako bibliografia luzean oinarritzat daukazan gizarte fenomeno nagusiak.

**Ahozpezz Bell Anperio**



**Emmanuel Todd**

**Después del imperio**

**Ediciones Akal, S.A. argitale-txea, 2002**

**192 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Martiaren 11tik 17ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

### 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

### Martiaren 18tik 24ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

### Martiaren 25etik 31ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

### 22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 600 74 63

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 01 85

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17 /

*mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*

### Gorbeialde Landa

#### Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79

**IKE** 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

**Euskotren** 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

**Areatzako Notarriotza** 94 673 92 26

### Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@errota.eus*

### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

### Bizkaibus 94 612 55 55

**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

### 3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

**Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

### 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

**Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

### 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00;

11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

**Ugaotik Igorre.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriatik Zeberiora.** Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkarte. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Mezarik ez Agate Deuna bezperan

Joan dan zezeilaren 4an, Santa Ageda bezperan, Arratiako Koruak, 73 urtetan lehenengo aldiz, ezin izan eban eguna goizeko 08:00retako mezeagaz hasi, Mikel Azpeitia parrokoak mezea ospatzeari uko egin eutsalako eta beste apaiz batzuei be ez eutse-lako itxi etorten Areatzara, meza hori ospatzera.

Koruak 08:30ean abestu behar izan eban eleizearen atarian, ateak itxita.

ARRATIAKO KORUA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BERBETAN eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLIII). Kale berbakunea sustatu guran

#### MEDITAZINOA (II)

-Ba hemendik aurrera **badakine!!** Begiak itxi, ixiltasuna entzun eta hasiko **haz** hire taupadak entzuten, amasea kontetan eta giharrak sentiduten...

-Eta apurka-apurka eta egunero-egunero, egoera horretan egoteko gaitasuna garatuko **dona**.

-Eta zer lortuko **joat** horregaz?

-Ba hire emozinoak kontroletea, lasai mantenidu egoera zailen aurrean, pentsetako momentu bat hartzea... holango gauzak.

## ERETXIA

### Euskereak kalea behar dau! Euskaldunok kalea hartu behar dogu!

**A**urreko egunean, lan egiten dodan institutuan ikasle batek bota eustan: "hamar persona bagagoz eta batek euskeraz ez badaki, logikoa eta errespetuzkoa da gazteleraz berba egitea". Hitz-kate horren eta bota dauan personearen atzean, banan-banan aztertu ezin diran hamaika bizipen zehatz dagoz: eguneroko alkarrizketak, diskursoak, gertaerak, irudiak, bideoak... Eta nagusitu dan logika bat antzeman daiteke, mundua gobernetan dauan logika indibidualista eta sasi-bakezalea, alegia.

Euskal Herrian (be) agintzen dauan logika horrek berak ezkutatzen ditu persona biren edo gehiagoren artean dagozan podere hartu-emonak; klaseak, sexu-generoak, jatorriak, azal koloreak, hizkuntzak eta abarrek eragindakoak. Holan, danok askeak eta poderez bardinak bagina legez pentsatzera eroan gaitue, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ezkutatu, ikusezin bihurtuz. Nik euskeraz edo gazteleraz egin, zer ardura dauka? Aske naz gura dodana egiteko. Gainera, ez daitela inor txarto sentidu, ez daigun inor txarto sentidu arazo. Errespetau daigun dana, bakotxak egin dagiala gura dauana, bakeak asko balio dau...

Pentsamolde honek, bistan da, gure arteko egiturazko podere hartu-emonak ezkutuan ixten ditu eta itxurazko bakea ezartzen dau, jakina, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan. Aitatutako ikasle horri holan itzuli neutsan itauna: "eta hori egiten badogu erdaldun bat dagoan guztietan, zenbatetan ahalko dogu geure hizkuntzan, euskeraz, berba egin?". Segundo batzuetako isiltasuna sortu zan eta beste ikasle batek holan

### SUGOI ETXARRI ZABALETA

EHEko kidea

erantzun eustan: "Bai, baina orduan, mundu guztiak euskeraz ikasi beharko leuke eta hori lortzea oso gatxa da...". Ttak, hasi ziran maila kolektiboan pentsetan, baina jakina, egiturazkoa dana aldatzea gatxa da, lar gatxa indibidualismoz inguratuta hazi dan nonorentzako.

Atzen urteotan gero eta gehiago, ikasleek euskerea eskoleagaz eta arauakaz lotzean daben irudipena daukat, eta erdere, kontrara, dibersinoagaz eta askatasunagaz. Urte luzeetako burrukearen ondorioz euskerea neurri (txiki) baten instituzionalizetea lortu dogun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dogu, baina gitxi egiten da berba horren gainean, eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealidade gordin hori ostenduta geratu da, indibidualismoaren eta sasi-bakearen

araupean. Izan be, Arestik inoan legez, bakeak euskereari -eta edozein talde zanpaturri- kalte egiten deutso.

Errealidadeak, sarritan, begiratu hutsagaz ez dira ikusten, baina seinalau ezker bai. Horregaitik, nire ustez, horixe jagoku oin; berba gitxitan esanda, nagusitzen dan maila instituzionaleko burrukeari uko egin barik, kalea berreskuratu behar dogu; lehenak bigarrena apaltzeko izaten dauan joerea gaindituz. Eskubide indibidualen lanketatik eta berba neurtuetatik harago, herri moduan daukaguzan ametsez, etsaiez eta askatasun kolektiboetarako bideez berba egiteko premia daukagu, egunerokoan "normaltasun" lez bizi doguzan egoerak desnormalizau eta kaleak asintzeko. Eta kale horreetan, behoken askatasuna gura daben beste mobimentu batzukaz topo egin eta indarrak batzeako.

Bizitza, hizkuntzak, herriak eta errentagarri ez jakon guztia suntsitzen dituan sistema honen eta bera iraun arazoten daben estaden aurrean, gure artean bereizi eta isolatzen gaituenen aurrean, itxaropena kendu gura deuskuenen aurrean... komunitadea lantzea da mobimentu askatzaile guztion premia bizia. Horretarako, konzientzia hartu, alkartu, konpleju zahar-barriak gainetik kendu, taldean pentsau eta ekin behar dogu. Tokian toki, ahal dan eremu guztietan erein, burrukak biztu, eragin. Bakarriz ezin dogu, lagunakaz bai.

Astindu barri bat behar dau gure hizkuntzeak eta komunitadeak. Aprilaren 22tik 28ra izango dogun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera bat eskainiko deusku, inflexino puntu bat, alkar motibau eta ahalduntzeko. Modu kolektiboan harrotzeko ariketa bat izango da, parte hartu gura daben euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok lez, egoerearen konziente izateko eta askatzailea dan komunitade baten parte aktibo izateko eskubidea daukielako, emon deiogun euskereari kalea!



## LUMATUTEN



## ALASNE ARTETXE

## Martia

**M**artiaren etorrereagaz batera iges egin deusta lehen malkoak, eta bigarrenak... zeozer eskatzen eta zeozer desiratzen dauanaren itxaropen igeskorra, hori da-ta... igeskorra, martiaren aire gorriak, goizero dakarren edur barriaren antzerakoa...

Loreek ez dabe usaintzen, txantxangorriak ez dau abesten, haizeak ez nau besarkatzen, ezta udabarriaren etorrerearen eguzkiaren su epelak berotu be.

Eta egiteko gehienak oindino egiteko daukaguzala ohartzen naz -andrea naz eta-.

Eta maite dodan hizkuntza bestelakoa izan daitekela herri honetan sinisten neban sasoiak be ospa egin dauala konturatu.

Euri-hotsa nire begien ertzetan, euri-hotsa nire ezpainenetan.

Estropezu egin izan dot/dogu baten, birritan... eta atzera pausu bat, bi... zenbat?

Harresiak aurrean, aldamean... bi... hiru... lau... noz arte?

Samina, tristurea, bildurra, frustazinoa, amorrua, mina.

Zortzian (martiaren 8an) betaurreko moreak jantzi genduzan, eta burrukatu bizitza "morearen" alde, milaka izar moreen argiaz gozatu, alai... eta gaur zer?

Martiaren 14tik 24ra herri harro honek "Harro Herri" oihukatuz zeharkatuko dauz ehundaka herri Korrikan, euskerearen aldeko ekimen erraldoian, bidebakterrek erdara hutsean jarduten daben bitartean.

...

Marea jaisten danean, hondarra bakarrik geratzen da, urak egin izan deutzazan laztanek, zirriek, txerek alde egiten dabe, orduan urari etxoten gelditzen da beste egun bat, bi... zenbat? Esakereak dino "oteak martien lore, ez da faltako eri eta dolore". Andrena eta euskerearena.

Ospakizunak ez ete beharko doguz hilebetez aldatu? Agian, patua aldatzea lortuko geunke.

## ZERTZEAN



## Gaia jarrita: "Korrika"

## IRATI ASTONDOA

1

Bihotz taupadak Irunen hasi parau barik Baionara milioika lagun bide berean parau barik goiz ta gaba pausorik pauso amets bat egi bihurtzeko kapaz gara harrotasunez bihurtu daigun protagonista euskara.

2

Gogoratzen naz ume nintzela ze emozino ta ze poz petoa jantzi ta lekukoa inoz eroanda gogoz urteak pasau arren oindo be bizitzen dot ilusinoz eta daukagun ilusinoa ez daitela galdu inoz.

3

Harrotasunez kilometroak herritarrekin batera seme-alabak esku banatan hartu ta benga aurrera euri, edurra, eguzki, laino mezua beti berbera ez daigun galdu horren aberats eiten gaituen euskera.

**Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu**

## BEGI TXINDORRA

**H**oneek kamioi militarrok Barazar gainean ikustean *iQue vienen los rusos!* pentsau dot, atoa pentsau be. Non ete dago NATO gu defendiduteko? Ipiñaburun bildurrez ikaran atzera be gagoz nobentaitoxo hatan lez, amerikanoak honaino etortekoak ziranean. Baina, oin Fraiskuk ez dauz Oketatik harrizarrak ekarri errekan ipinteko, eta Putinen semeak kolau jakuz. Bai zera be! Saldropen pelikula bat egiten dabilz, Gerra Zibilaren ingurukoa, eta horreek trastoak *atrezzorako* baino ez dira. Aukeran gurago dodaz fikzinozko gerrak erralidatean espero doguzanak baino.

**Alvaro Rabelli**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Goider 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

**agoa** Ortodontzia  
Inplanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Oñativia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bilaka  
T. 94 631 50 39  
Kalejuzko Zirkuluak 101  
R.P.S. 21/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Salto! udalekuetan izena emoteko epea zabalik dago

### Erredakzioa

Martiaren 31ra arte emon daiteke izena Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatutuen dauzan Salto! gazteentzako udalekuetan parte hartzeako. Txanda bi dagoz: bagilaren 24tik garagarilaren 2ra eta garagarilaren 4tik 12ra. Txanda bakotxean 60 laguntzako lekua dago, 2006 eta 2009 bitartean jaiotakoentzat.

Aurten be ibiltaria izango da ekimena, Arantzan hasi eta, Doneztebe eta Oronoz-Mugaire zeharkatu ondoren, Elizondora ailegauko dira partaideak. Herri bakotxean gau bi pasauko ditue, eta herri batetik bestera oinez joango dira.

Euskerearen normalizazioan gazteek daukien garrantziaz jaubetuta, Uemak udalerri euskaldunetako gazteentzako topaketak eta udalekuak antolatu ditu atzen urteotan, Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz. Euskeraz bizi diran gazteek inertziatik konzientziarako saltoa emotea eta horregaz efektu

biderkatzailea sortzea da topaketa zein udalekuen helburua, eta gazteak sentsibilizatea eta saretzea lortu gura da udaleku honek.

### Izen-emotea

Udalekuek 150 euroko prezioa daukie eta izena *uema.eus* webgunean, 943 81 66 99 telefonon, *administrazioa@uema.eus* posta elektronikoa edo Telegram edo Whattsappen bidez 608 668 155 zenbakian emon daiteke. Datuak emoteaz gainera, lehentzako txandea adierazo behar da.



Salto udalekuetako partaideak igaz Areatzako frontoian.

IGORRE

## Igorreko Patxi Urquiriren gorpuzkien bila dabil Aranzadi Saibigainen

### Erredakzioa

Patxi Urquiri Gorostiaga Saibigainen hil zan 1937ko apirilaren 14an. Holan dino behintzat bere heriotz oroigarriak, baina seguru dan bakarra da hango batailan galdu zala bere errastoa. Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Euskal Prospekzioak Taldeak, Urkiolako Parke Naturalaren barruan, Abadiñoako lur eremuetan, Saibi mendiaren magalean dabiz hango batailan hildakoen gauzak eta hazurrak topetan, identifikau eta bila dabizen ondorengoei emoteko. Zezeilean, lurpetik hazur bat atera eben eta han egon zan Igorreko Nerea Argiñe Atutxa Urkiri, Gogora Institutuak konbidauta.

Bere amaren osaba Patxi eta Benitoren errastoen bila dabil Atutxa. Aspalditik dabil hartu-emonetan Gogora Institutuagaz. Bere aitita Timoteo Atutxaren fusilamentua zala-ta ipini zan kontaktuan eta desagertutako amaren aldetiko Patxi eta Benito osabak bilatzeko

DNA lagina emon eban. "Nik uste dot oso-oso gatxa izango dala, ze Aranzadikoak esan euskun han jente pilo hil zala, pilo-piloa. Hirutan galdu eben Saibi errepublikarrek eta gero etorri ziran asturiarrek lagunduten. Apirilaren 14an, oso eguraldi txarra egon zan eta bataila gogorra izan zan. Asko hil ziran egun haretan". Aranzadikoak "oin dabiz kurutzearen atzeko alderdia arakatzen. Eta gero hasiko dira kurutzearen aurrealdean, eta inguru guztian ahaleginduko dirala esan deuskue. Ia baimenak

emoten deutseezan arakatuteko! Pilo bat ei dagoz. Piloa".

Gatxa dala jakin arren, Atutxak ez dau osabak topatzeko esperantzea galtzean, euren gorpuzkiak topau eta etxeokaz lurperatzeko.

### Patxi eta Benito Urquiri

Igorreko Garbe auzoan, Arantzazura doan kamino ondoan bizi ziran Urquiri Gorostiagak. 1937ko apirilaren 14an galdu zan Saibigainen Patxi-aren errastoa, eta 1938ko urtailaren 1ean, Teruelen, Benitoren. Patxi 23 urte eukazan eta Benitok 22.



Nerea Argiñe Atutxa Urkiri.

DIMA

## Euskal kultura gastronomikoaren sarea sortu dau Garena jatetxeak

Antxinako saboreak berreskuratzeko proiektuagaz, Dimako Garena jatetxeak eta produktoreek Gardena Konpromezu Manifestua sinatu eben zezeilean.



### Erredakzioa

Julen Baz sukaldaria izan zan sinatze ekitaldiaren gidaria, eta guztira 45 persona batu ziran gremio guztietakoak: artisauak, nekazariak, abeltzainak, sukaldariak, zerbitzariak, hornitzaileak... Manifestuak, euskal kultura gastronomikoaren inguruko informazioa, produktua eta jakintza konpartidutako sare bat sortzea dauka helburua.

Garena jatetxeak 2020ko zezeilean zabaldu ebazan atek eta 2021ean, Basque Culinary Center-egaz alkarlanean hasi zan, Gardena proiektua sortzeako, gatzeako arriskuan dagozan barazki eta animaliak aztertzen. Hori dala-ta, jatetxe inguruan ortu txiki bat ipini, eta desagertzeaz dagozan euskal oiloentzako espazioa egokitu eben. Helburua antxinako saboreak berreskuratzea danez,

animaliak lehen zaintzean ziran moduan zaindu behar dirala uste dabe bultzatzaileek; modu ekologikoan eta inongo pestizidarik erabili barik, hain zuzen be. Holan, modu ekologikoan ekoizten dabizen ekoizleen beharra izan eben jatetxeok eta Euskal Herriko produktoreen sarea sortzeari ekin eutsien. Oin, jatetxeak eta produktoreek Gardena Konpromezu Manifestua sinatu dabe euskal kultura gastronomikoari eusteko.

### Euskal Herriko produktoreen sarea

Manifestua sinatuteko ekitaldira bertaratu ziran Garena jatetxeoko ekipo osoa, Julen Baz, Aitzol Atutxa, Garazi Garzia eta Peli Perez de Anuzita, tartean; Igorreko Iker Yurrebaso nekazaria, Zeanuriko Jon Etxebarria eta Puy Arrieta artzainak, eta Blanca Gomez de Segura, edo Oihane Pardo artisauak, beste askoren artean, euren jakintza, produktuak eta informazioa euskal kultura gastronomikoaren sarean ipinteko.

UBIDE

## Ubide, Otxandio eta Legutioko lurretan parke eolikoaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago

### Erredakzioa

Martiaren 4an Eusko Jaurlaritzak iragarri eban Plauri Energy enpresek hiru udalerritako eremuetan, parke eoliko bat egiteko proiektua aurkeztu dauala. Enpresek proiektua eta ingurumen inpaktuaren txostena aurkeztu dauz, eta Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak baimen eskaerea aztertu aurretik, alegazioak aurkezteko hilebeteko epea zabaldu eban hurrengo egunean, hilak 5, Jaurlaritzak.

Kastillo izeneko parke horrek, hogeit hamar megawatt-eko gehienezko potentzia izango leuke. Izan be,

bost megawatt-eko lau haize erroto parkea egin gura dau Plauri enpresek. Errota bakotxa 121 metroko altuerakoa izango da, eta aerosorgailuen arteko interkonexio azpiegitura Legution egongo da. Errotez gainera, altuera bereko meteorologia torre bat be eregiko dabe Ubideko lurretan.

### 20 milioitiko gorako kostua

Azpiegitura guztiak eregiteko 20,5 milioi euroko kostua aurreikusit dabe. 18,7 milioi euro haize errota eta gainontzeok eregiteko izango dira, ia 500.000 euro sekzionatze zentroa egiteko eta 1,3 milioi euro ebakuazio linea egiteko.



ARRATIA

## Hasi da Arratiako Lurralde Plan Partziala berrikusteko prozesua

Gaur egun indarrean dagoan Arratiako lurralde-estrategia ezartzeko dokumentua, LPPa, 2010ean landu zan. Baina gaur, gizarte zein lurralde antolamentu mailan gai asko begi desbardinakaz ikusten dirala eta beharrianak aldatu dirala-ta, Lurralde Plan Partziala berrikusiko dau Bizkaiko Foru Aldundiak.



**Erredakzioa**

Prozesuaren nondik-norakoak azaldu eta parte-hartze prozesuari hasikerea emoteko, Aldundiak saio bat antolatu eban Igorren martiaren 7an. Bertan, LPPa garatzeko kontuan hartzean diran gai eta baldintzak azaldu ziran baina kolokan gelditu zan parte-hartzea, denpora faltea zala-ta, ez zan egin antolatuta egoan tailerra.

Bizkaiko Foru Aldundiko erredaktoreek azaldu ebenez, Arratiako LPPa "ez da barria, eginda dago baina berrikusi egingo da". Izan be, lege -eta estrategia- aldaketek gainera, gaur egun garrantzia handiago emon gura jakie osasuna eta ingurumena moduko gaiei, besteak beste. LPPa beharrian bat dala defendidu eben, herrien arteko koherentzia ezartzeko estragiaz lez: "Ez daitela bidegorriak egin, hurrengo herriko mugan amaitzen danik".

Adibide hau landuko diran hamaika gaitara eroan daiteke. Natura-ingurunearen inguruan, lau gai landuko dira: ingurune naturala eta azpiegitura berdea; landa-habitata; natura ondareagaz lotutako aisi eta turismo eskaintza eta azkenik; baliabide naturalak, zabortegeak eta harrobiak. Uri inguruneari jagokonez barriz, uri sistema eta lurralde harremana,

mobikortasuna, etxebizitza eta amaitzeko enplegu eta ekonomia izango dira langaiak. Bestetik dagoz zeharkako gaiak: ondasuna eta identidatea, klima aldaketea eta inklusibidade eta osasuna.

Baina zehaztu eben, Arratiako zortzi herrien arteko kohesinoa bakarrik ez, "inguruagazko interrelazioa" be landuko dala, Galdakao eta Durangaldeagaz batez be. Mobilidatea arratiarren arazo nagusienetakoa izanik, Boroa-Igorre arteko erradiala, Metroaren bosgarren linea eta Lemoako tren geltokiaren intermodalidatea egon ziran besteak beste, mahai gainean. Bizkaiko Foru Aldundiak, Mankomunitate eta udaletxeakaz berba egin ostean, identifikautako beste arazo batzuk lantzeko beharra be azaldu eben: auzoetako telefonia zerbitzua, ur-hornidura bateratua, saneamentua, hondakinak, base-ri hutsak...

**Arratiarren kezak**

Aurkezpena amaituta, herritarren galderak entzuteko aukerea egon zan eta bertan azaleratu ziran hainbat kezka. Entzuleetako bat, kezkatuta agertu zan, Eusko Jaurlaritza landuten dabilen Plan Estrategikoak parke eolikoan eraiketa batzean daualako eta plan hau, Arratiako LPPa baino arinago izapidetuko dalako, interes talkak

sortuta. Bestetik, turismoaren eta lehen sektorearen arteko gatazkea azaleratu eban beste batek. Saldrapon adibidez, paisaia lehen sektorearen erabilereagaz dagoalako lotuta: "Zer egingo da turismoa bultzatu eta erabilerea ez oztopatzeke?". Landagunee-tako auzoen hazteko gaitasunaz be biztu zan kezka, honeen erregulazio dokumentuen bitartez, eregiten ixten ez dalako.

Beste gai batzuen artean egon ziran, errekearen egoera eta erabilerea, N-240 errepideko obra eta ordainsariak, autopista elektrikoa, zabortegeak, azpiegituren finantziazioa eta abar. Aldundiko erredaktoreek azaldu eben, Arratiako LPP berrikusian kezka guzti honeek islatu behar zirala, Bizkaiko Foru Aldundiaren zein Eusko Jaurlaritzearen planetan eragiteko helburuagaz. Kezka honeek gorpuztuteko tailerra ez zan egin azkenean baina azaldu ebenez, egongo dira aukera gehiago.

Arratiako LPParen Aurrerakin eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa uda aurretik izatea espero dau Aldundiak eta orduan, beste saio ireki bat deituko da, ekarpenetarako postontzi eta webgunea zabaltzeaz gainera. Geroago, tramitazioa hastetakoan beste parte-hartze fase bat zabalduko da.

AREATZA

## Jabekuntza eskolako antzerki tailerrera izen-emotea zabalik dago

**Erredakzioa**

Aprilaren 2an hasiko da Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Artedrama laborategia* izeneko antzerki tailerra Irati Iturrateren eskutik Areatzako Gaztelekuan. Tailerrak, 18:00etatik 20:00etara, ordu biko lau saio izango ditu apirileko martizenetan: 2an, 9an, 16an eta 23an. Izena, Arratiako Udalen Makomunitatean (webgunean, telefonoz edo bertan) edo udaletxeetan emon daiteke.

Partaideak antzerkiaren munduan murgilduko dira "ordu batzuek ageriko gorpuzkerak alde batera itxiz, gorpuzte definidu bakoak, bihurri eta barregarriak, malguak eta ardurabakoak bi-

hurtuteko. Ahalduz ariketa honetan seguru sentidu arazoten gaituen tresnak asmatuko doguz" azaltzen dabe antolakuntzatik.

Tailerraren helburua, alkarbizitza arintzen ikastea da.



AREATZA

## Areatzan azokea eta musikea egongo dira Korrika Kulturalaren barruan

**Erredakzioa**

Martiaren 16an, 10:30etik 15:00etara, nekazaritzako elikagaien eta artisau produktuen azokea egongo da, eta 12:00etan, Areatzako Bandak kontzertua eskainiko dau plazan.

Eguraldi txarra egin ezker, eskoletako aterpean izango dira kontzertua eta merkadua. Bandaren kontzertua amaitzen danean, Kittu taldeagaz kalejirea egingo da herrian zehar. Ekintza honeek Korrika Kulturalaren barruan dagoz.

Azokan, Arratia eta inguruko herrietako produktuak erosi ahal izango dira: baserriko ogia, euskal pastela, ortuariak, gaztaia eta pateak, besteak beste. Inguruko artisauen lanak be egongo dira salgai eta erosketak egingen dabezanen artean tokiko produktuen loteen zozketak egingo dira.



ZEBERIO

## Udal lokalak aprobetxetako inbersinoa egingo dau Zeberio



### Erredakzinoa

Martiaren 7an onartu eban Zeberio 2024ko udal aurrekontua EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Kontuon arabera, guztira 1.797.000 euro kudeatuko ditu Udalak aurten.

Galdetegi baten bitartez, herritarrek eurek ebatzi eben, Herriak egiten programako 48.000 euroak zertan erabili. Horretarako, urtailaren 18ko herri bileran 5 gai orokor landu ziran, proposamen asko jasoz. Gaiok: etxebizitza, garapen ekonomikoa eta inguruaren zaintza, mobikortasuna, herritarren zaintza eta udal lokalen aprobetxamentua izan ziran. Zezeilean, 16 urtetik gorako zeberioztarrek, emoten deutseen lehentasunaren arabera sailkatu ebezan gaiak. Hori dala-ta, udal lokalak probe-

txauz, neurriko zerbitzu barriak sortzeako, 85.713 euroko diru partidea dago 2024ko kontuetan.

Beste inbersino garrantzitsu batzuk be egingo ditu Udalak herrigintzan. Holan, auzoetako bidetako konponduteko 69.000 euro dagoz eta urigintzako jardueretarako 44.000 euro. Umeen parkea handituteko 25.000 euro dagoz.

Dirulaguntzei jagokienean, alkarteentzako 18.000 euro dagoz eta beste 2.000 euro nazionarteko alkarlaguntzarako.

### EAJ-PNVk kontrako botoa

Karlos Idirin EAJ-PNVko zinegotziaren arabera, aurrekontuak oso "ahul" ikusten ebezalako eta jeltzaleek eskatutako gauza batzuk jaso ez, edo diru partida txikiagaz jasota dagozala eretxita, emon eben ezezko botoa.

AREATZA

## Euskal Herriko Gazteen Dantza Topaketa Areatzan izango da

Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatuten dauan Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketa, bagilaren 21etik 23ra izango da Areatzan. Parte hartzeako izena martiaren 22ra arte emon daiteke [www.gazteendantzatopaketa.eus](http://www.gazteendantzatopaketa.eus) webgunean dagoan formularioa betez.



Igazko topaketako irudia.

### Erredakzinoa

Euskal Herriko 15 eta 25 urte bitarteko jantzeri gazteek, (1999 eta 2008 bitartean jaiotakoek, emon leikie izena topaketarako. Astegioien baten, jantza taldeek

beteten daberen zereginen gainean hausnartuko dabe, baita taldeetan belaualdi erreleborik ez egotearen aurrean hartu beharreko neurrien gainean be.

Izan be, gazteek jantza taldeak itxi ez dagiezan beharrezkoak di-

ran pausuak emoteko abiatu dau Euskal Dantzarien Biltzarrak Gazteen Dantza Topaketaren bigarren edizinoa. Lehenengoa, Araian (Araba) egin zan. Bagilean, Araian ateratako emaitzetatik abiatuta, jantzeriek egungo egoerari buruz eztabaidatuko dabe eta jantza taldeetan ezarri beharreko hainbat neurri proponiduko dabe. Gainera, euskal jantzez gozatu dabe eta talde eta herrialde desbardinatoko jantzerien arteko hartu-emonak sortuko ditue; holan, komunitate bateko kide izatearen sentimentua handituteko.

### Euskal Dantzarien Biltzarra

Euskal Dantzarien Biltzarra 1965ean sortu zan, Euskal Herriko jantzea, musikea eta ohi-turak mantenu, berreskuratu eta zabaltzeko helburuagaz. Diru irabazi asmorik bako alkarte soziokulturala da, euskal jantzak sustatu eta babesteko helburua daukana.



Oraindik horri lasterkeria

# Gure

ikasleak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## SARETZEN PROIEKTUA. BANKETXEAK (I)

# Ezin da dirurik atera, ez Arantzazun ezta Artean be

Bankuen irabaziek urtean-urtean gora egin arren, urtez urte, banketxe eta bulego gitxiago dago Hego Euskal Herrian: 2008an egozaren erdia. Eta kutzazain-puntu kopurua, estatu mailan gitxi gorabehera mantentzen egin dan arren, Arratian galdu egin da baten bat. Ordainketa-terminalak (datafonoak) barriz, zabaldu egin dira ia komertzio guztietara. Joera orokor hau neurri desbardinean gertatzen da leku batetik bestera. 2008an hasi zan prozesua eta goia jo dau pandemiaren ostean.

## Erredakzioa/Saretzen

**Bulegoak zarratuten**

Bulegoen gitxitzeak zerbitzuen murrizketea dakar beti. Ha-ta guzti be, atek zarratuten dauzan bulegoen eragina jentearengan ez da bardina bulego hori uri edo herri handi baten dagoanean ala herri txiki baten dagoanean. Ez da bardin, esate baterako, Bilbon edo Basaurin bulego bat kentzea, edo bulego bakarra dagoan herri baten kentzea; bigarren kasu honetan, herritarrak zerbitzu barik geratzen diralako eta beste herri batera joan behar diralako kotea edo garraio publikoa hartuta, horrek dakarren diru eta denpora gastuagaz.

Hamabost urtean, EAEk, 1.034 bulego galdu ditu, 2008an eukan




sarearen %51. Bulegoen kopuru ia erdia, Bizkaiak galdu dau: gaur egun, 2008an baino 530 bulego gitxiago daukaz. Prozesu horretan, urtean-urtean, batez beste 69 bulego galdu izan dira; baina mugarri bi dagoz, errazoi desbardinak dirala-ta, kopurua askoz handiagoa galduta. 2012an eta 2020an, hurrengo urteko datuetan ikusten dan moduan. Izan be, 2013ko datuek erakusten dabe krisiarean eraginaz gainera, arloa aldatu eban banketxeen fusino ugari egon zirala, eta urte haretan EAEn 186 bulego kendu ziran Banco de Españako datuen arabera. 2021ean, pandemia zala-ta, eta digitalizazioaren bultzadeagaz, 139 bulego galdu ziran.

Bulego kopuru handiagoa galdu da urietan eta densidade






**Banketxeen bulego-kopurua entitatearen arabera 2015-2023**



Iturria: Espainiako Bankua

**Banketxeen bulego-kopurua entitatearen arabera 2015-2023**



Iturria: Espainiako Bankua

**Hiruka hedabideak egindako grafikoak.**

handiko populazioetan. Arratian eta Zeberion, populazioa nahiko sakabanatuta dagoanez, ez da hainbestekoa izan eta 16 bulego-tik 13ra, pasau dira; hau da, kopuruari jagokonean, %18,75 baino ez dau galdu gure eremuak. Baina gurean, herriak txikiak diranez, bulego bakar baten galereak, herria banku-bulego barik itxia izan daiteke. Horixe gertatu da Bedian, eukan bulego bakarra galdu egin dauala eta oin, aurrez aurreko gestioetarako inguruko beste herriren batera joan behar dirala bediaztarrak.

Bulegoak mantentzen arren, badago beste zerbitzu murritzeta bat, datuetan agertzen ez dana eta Arratian eta Zeberion, eragin handia izan dauana: ordutegi murritzetea. Izan be, banku-bulego asko zabalik egoten ziranak astelehentik barikura, oin astean behin edo bitan eta ordu gitxi batzuetan baino ez dabe zerbitzurik emoten. Diman esaterako, herrian dagoan bulego bakarra, barikuetan baino ez dago zabalik. Areatzan Kutxabankeko bulegoa martitzen eta eguenetan egoten da zabalik; Zeanurikoa barriz, astelehen eta eguaztetenan. Gainera langile gitxiago dago lanean oin bulego horreetan.

**Dirua aterateko kutxazain-puntuak**

Egia da gero eta eragiketa gitxiago egiten dirala banku-bulegoetan. Jenteak, aspaldi itxi eutsan bulegora joateari dirua aterateko eta diru fisikoa kutxazainetan ateraten da, batez be. Baina atzenengo urteetan, kutxazain-puntuak be gitxitzen doaz. Holan, estadian kutxazain kopurua, %22 murriztu da 2006tik. Eta gurean be galdu egin dira kutxazain-puntuak. Artean,

esate baterako, egoan kutxazain bakarra kendu eben oin dala urte batzuk. Hori dala-ta, ez Arantzazun, ez Artean ez dago ez bulegorik ezta kutxazainik be. Arantzazukoek Igorrera jo behar dabe eta Arteakoek Areatzara dirua aterateko.

Kutxazain mantentzen eskasaz be keja da erabiltzaileak gurean. Holan Diman, kutxazaina matxuratu edo argiztapena hondatu egin danean, egunak pasau behar izan dirala barriro zerbitzua

behar dan moduan eukiteko keja dira sarritan.

Arratia, Ubide eta Zeberion guztira 15 kutxazain-puntu dagoz: Areatzan, kutxazain puntu bi dagoz (Kutxabank eta BBVA); Bedian bat (Kutxabank); Diman bat (Kutxabank); Igorren 5 (Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Caixabank eta Sabadell); Lemoan 3 (Kutxabank, Caixabank eta BBVA); Ubiden kutxazain bat (Kutxabank) eta Zeanurin eta Zeberion Kutxa-


bankeko kutxazain bana.

**Entidadeak**

Entidadeei jagokienean, 2008an, 40 entidadek eukien bulegoren bat Hego Euskal Herrian. Gaur egun, 26 dira, eta guztizkoaren hiru laurden, lau entidadek beteten dabe: Caixabankek, Kutxabankek, Nafarroako Rural Kutxak eta Laboral Kutxak, hain zuzen be. Bizkaian, banketxe nagusia Kutxabank da, %27; ostean,

Caixabank %16,5 eta hirugarren handiena, Laboral Kutxa da %16. Arratia, Ubide eta Zeberion, Kutxabanke 6 bulego ditu, %46; BBVAk 3, %23; Laboral Kutxak 1, %7,7; Caixabankek 2, %15,3 eta Mediolanumek 1, %7,7.

Bankuek gero eta diru gehiago irabazteko errazoa ez da bakarrik zerbitzu murritzetea. Sektorean bankuen fusino ugari egin dira, banketxe gitxi batzuetan itxiz, gero eta handiago dan negozioia.





**23.korrika**  
**HARRO HERRI**

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

*“Euskalduna eta euskeraz mintzo dena, euskera darabilana, euskeraz hitz egiten duena, gauza bat eta berbera dira... Euskera ezta alderdi bat edo besterena, euskaldun guztiena baizik...”*

**J.B. Eguzkitza Meabe** idazle eta euskaltzain lemoztarrak 1928an Arrasaten.

**LEMOA UDALA**

**IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

begitu  
eus

Berbaz eta egitez  
DIMA HARRO HERRI!



23. korrika  
**HARRO HERRI**  
Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

**ERROTA**  
ARRATIOKO GARAPENERANTZA

**ERROTA KORRIKA** Agaz!  
Errotak 2.156 kilometroa egingo dau

ARTEAN  
HARRO BIZI EUSKERAZ



Korrika  
apirilaren 22an  
iritsiko da Arteara



## 23. KORRIKA

# Badator 23. Korrika

Martiaren 14an abiatu zan AEK-k antolatutako 23. Korrika Irundik, Euskal Herri osotik milaka kilometro egin ostean, martiaren 24an, Baionara ailegetako. Ibilbide horretan, hilaren 22an pasauko da Arratia eta Zeberiotik: 2.096 kilometroan sartuko da Zeberiotik, herriko alkarte eta abarrak 2098 kilometroan hasiko diran arren lekukoa erooten, eta Lemoako Markesasti auzotik urtengo da 2.157 kilometroan.

## Erredakzioa

Korrika herritik pasetan dan egunean, musikea eta janagaz ospatuko dabe arratierrek euskerearen aldeko lasterketa erraldoia, baina aurreko egunetan be herriak atondu eta Korrika Kulturalako ekintzakaz hasiko dira jai giroa sortzean. Korrika pasetan ez dan Bedia, Ubide eta Zeanuriko udalek eta alkarteek be erosi ditue kilometroak herritik ahalik eta hurren, eta herritarrek alkarregaz hurreratuko dira euren kilometrorra edizino honetan be parte hartzeako.

BEGITU ateraten dauan Zertu Kultur Elkartearen kilometroan lekukoa eroateko zozketea egingo da irakurleen artean.

## Korrika Kulturala

Artean, martiaren 15ean, 19:00etan, Korrika Kulturalaren barruan, aurtengo omendua, Azterketak Euskaraz kolektiboa zer dan erakusten dauan *Oihaletxea* dokumentala eskainiko da Kultur Etxean. Eta hilaren 17an, domekan, 12:00etan, mosaikoa eta argazki kolektiboa egingo dabe herriko plazan.

Areatzan, 15ean, Korrika Kulturalako ekintzen artean *Bizkarsoro* filma emongo da arrastiko 18:30ean, udaletxeko areto nagusian. Hurrengo egunean Nekazaritzako Elikagaien Produktuak eta Artisautza Azokea egingo da plazan 10:30ean hasita; 12:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua egingo da plazan eta ostean Kittu taldeagaz kalejireia herrian zehar.

Igorren 15:36ean eta 16:27an, sartuko da Korrika, eta pasau ostean, txarangea egingo da. 16:30ean, taloak jateko aukerea egingo da autobus geraleku ostean eta 17:30ean, erresina tailerra gazteentzako Kultur Etxean.

Lemoan, hilaren 16rako presatatu dabe Korrika Kulturalako egitaraua. Jaia 13:00etan hasiko da herria apainduz, poteo musikatu



2022an BATZek egindako kilometroa.



2022an Zaztaparrak Asti Taldeak egindako kilometroa.

be egingo dabe eta *Harro Herri* erakusketea egingo da ikusgai. 15:00etan, bakotzak etetik eroandakoagaz bazkari herrikoia egingo dabe eta 17:00etan, azterketa parodia eta *Oihaletxea* dokumentala emongo dabe. Egunari amaiera, Korrika poteoagaz emongo deusie.

## Korrika eguna

Hilaren 22an pasauko da Korrika Zeberio eta Arratiatik. 2099 kilometrorra, Zeberion, 13:39 inguruan ailegetea espero da eta 17:38ak arte ibiliko da Arratian. Korrika pasau ostean, musikea eta jaia egingo da herrietan, urte birik behin egiten dan euskerearen aldeko

lasterketa erraldoia ospatuteko.

Zeberion, Korrika jaia 15:00etan hasiko da. Eskolako umeek bertsoak botako dabez eta gero, 15:30ean, bazkari herrikoia egingo da norberak eroandakoagaz. Ostean, 16:30ean, karoakea egingo da eta 19:00etan, Orkresta Elektrotxaranga eta

19:30ean, Austarri Kultur Elkar-teak txistorrea eskainiko deutse bertaratutakoei. Guraso alkarteak txosnea ipiniko dau 17:00etatik aurrera.

Artean, 14:30ak aldera pasauko da Korrika herritik eta 16:00etan, ludotekea egingo da plazan, 17:30ean umeek euskal jantzak egingo dabez, eta ostean, taloak egingo dira. Kilometrokan-tu ekimenagaz emongo deusie amaiera Artean Korrikaren jaiari.

Areatzan jolasak eta umeentzako tailerrak antolatu ditue Korrika pasautakoan jai giroari eusteko. 18:30ean, DJ Naroak musikea ipiniko dau Gudarien Plazan.

Arantzazura 14:28 inguruan helduko da Korrika eta gauean Zuku eta otsoa musika saioa egingo da Herriko Tabernan.

Diman, 14:30ean Gaztelekukoak eskolara joango dira arpegiak margoztera. 16:30etik 18:30era, umeentzako puzgarriak eta arpegiak pintetako eta txapak egiteko tailerrak egingo dira. Ostean, 18:30ean, txokolatea bananduko da eta 19:00etan, Sama Siku txarangeak ipiniko dau jai giroa herrian.

17:00ak aldera sartuko da Korrika Lemoara. Lemoan, Arratiako ibilbidea amaitu eta Durangalderantza urtengo da. Korrika pasautakoan, pintxoak, herrikirolak eta Durundubarrigaz musikea eta jantzak egingo dira plazan. Elkartrukeko gazteek jatekoa salduko dabe Gaztetxe aurreko plazan eta 21:00etan, Kittu taldeagaz erromeria egingo da egunari eta Arratiako ibilbideari amaiera emoteko.

## Bedia, Ubide eta Zeanuri

Aurten Korrika ez da pasauko Bedia, Ubide eta Zeanuritik baina herritarrek hartuko dabe parte Korrikan, udalek, alkarteek eta abarrek inguruan hartutako kilometroetan. Korrika Txikia eta Korrika jaia be egingo dabe herri horretan eta Korrika Kulturalako jarduerak be egingo dira.

Ubidekoak izango dira lehenen-

Km	Herria	Eroslea	Ordura
2098-2	Zeberio	Zeberioko Arbildu Egoitza	13:35:00
2099	Zeberio	Zeberioko EH Bildu	13:39:00
2100-1	Zeberio	Zeberioko ez hain gazteak	13:46:00
2100-2	Zeberio	Zeberioko Gazte Elkarte	13:49:00
2101-1	Zeberio	Zeberioko EAJ-PNV	13:52:00
2101-2	Zeberio	Zeberioko Gure Indarra Jubilatuen Elkarte	13:55:00
2102	Zeberio	Zeberioko eskola/Guraso Elkarte	13:59:00
2103-1	Zeberio	Austarri Mendi Kluba	14:05:00
2103-2	Zeberio	Austarri Kultur Elkarte	14:08:00
2104	Zeberio	Zeberioko Udala	14:11:00
2105	Zeberio	Arrankudiaga-Zollo	14:18:00
2106-1	Zeberio	Mabinkorta (Arrankudiaga)	14:24:00
2106-2	Zeberio	Decoletajes y Fijacion (DYF)	14:27:00
2107-1	Artea	Arratiako Musika Eskola	14:29:00
2107-2	Artea	Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia	14:31:00
2108-1	Artea	Zaztaparrak Asti Taldea	14:35:00
2108-2	Artea	Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoak	14:38:00
2109	Artea	Artea Herriko Benta	14:40:00
2110-1	Artea	Arteako EH Bildu	14:43:00
2110-2	Artea	Arteako Guraso Elkarte	14:45:00
2111	Artea	Arteako Udala	14:46:00
2112-1	Artea	Arteako Udala	14:51:00
2112-2	Artea	Albakoa Guraso Elkarte	14:54:00
2113-1	Areatza	Arratiako EAJ-PNV	14:56:00
2113-2	Areatza	Lamino Kirol Kluba	14:58:00
2114-1	Areatza	Peña Gorbeako Gurutzea Athletic Club	14:59:00
2114-2	Areatza	Areatzako Herri Eskolako Familia Elkarte	15:00:00
2115	Areatza	Areatzako Udala	15:01:00
2116	Areatza	Areatzako EH Bildu	15:03:00
2117	Areatza	Zeanuriko Udala	15:05:00
2118	Artea	Laratzue Kultur Elkarte-Zeanuriko EH Bildu	15:07:00
2119-1	Artea	Suzien Mendi Kluba	15:11:00
2119-2	Artea	Zeanuriko Txistulariek	15:13:00
2120-1	Artea	Ekin Eraiketak S.L.	15:14:00
2120-2	Artea	Bediako Udala	15:16:00
2121	Artea	Baserrigintza Berria S.L.	15:18:00
2122-1	Artea	Basoa Fundazioa	15:22:00
2122-2	Artea	Zertu Kultur Elkarte-Begitu aldiakaria	15:24:00
2123-1	Artea	Arratiako Mugimendu Feminista	15:26:00
2123-2	Artea	Arratiako Bertso Eskola	15:28:00
2124-1	Arantzazu	Arginatx Mendi Elkarte	15:29:00
2124-2	Arantzazu	Arantzazuko EH Bildu	15:31:00
2125	Arantzazu	Arantzazuko Udala	15:33:00
2126-1	Igorre	Arratia Futbol Kluba	15:36:00
2126-2	Igorre	Ilunbe	15:38:00
2127-1	Igorre	Inazio Zubizarreta Guraso Elkarte	15:41:00
2127-2	Igorre	Inazio Zubizarreta Eskola	15:43:00
2128	Igorre	Batz S Koop	15:46:00
2129-1	Igorre	Kifu Gaztetxea	15:51:00
2129-2	Igorre	Dimako Udala	15:53:00
2130	Dima	Abizari Euskara Elkarte	15:55:00
2131-1	Dima	Indusi auzoa	15:57:00
2131-2	Dima	Olazabal auzoa	15:59:00
2132-1	Dima	Azkabarte Txokoa	16:01:00
2132-2	Dima	Txumuluxueta Pelota Elkarte	16:03:00
2133	Dima	Dimako Gazte Barri Dantza Taldea	16:04:00
2134-1	Dima	Dimako Guraso Elkarte	16:07:00
2134-2	Dima	Dimako eskola	16:09:00
2135-1	Dima	Arratiako Egoitza	16:10:00
2135-2	Dima	Zamakola Alkarte	16:11:00
2136-1	Dima	Pidadeondo Egoitza	16:12:00
2136-2	Dima	Txumuluxueta Kultur Elkarte	16:14:00
2137-1	Dima	Dimako Bertso Eskola	16:16:00
2137-2	Dima	Dimako EH Bildu	16:17:00
2138-1	Dima	Dimasloa	16:19:00
2138-2	Dima	Keixako Hegoak Parapente Taldea	16:21:00
2139-1	Dima	Oioloka Elkarte	16:22:00
2139-2	Dima	Andraizea	16:24:00
2140-1	Dima	Txaro	16:25:00
2140-2	Igorre	Herrira Etxerat	16:27:00
2141	Igorre	Arantzarte Dantza Taldea	16:29:00
2142-1	Igorre	Igorreko Euskara Batzordea	16:33:00
2142-2	Igorre	Arratiako AEK	16:35:00
2143-1	Igorre	Igorreko Udala	16:37:00
2143-2	Igorre	Igorreko Jubilatuen Txokoa	16:39:00
2144-1	Igorre	Luis Inamizaga Abesbatza	16:41:00
2144-2	Igorre	Arratia Institutua	16:43:00
2145-1	Igorre	Trantzia Txiki Guraso Elkarte	16:45:00
2145-2	Igorre	Ormazabal	16:47:00
2146-1	Igorre	Basauntz auzoa	16:50:00
2146-2	Igorre	Igorreko EH Bildu	16:53:00
2147-1	Igorre	Igorreko Esku Pelota Elkarte	16:55:00
2147-2	Igorre	Makatzak Arratiako Ekologistak	16:57:00
2148	Lemoa	Itu Lemoa	17:00:00
2149-1	Lemoa	Lemoako Eskupilota Taldea	17:06:00
2149-2	Lemoa	Lemoaharrobi Futbol Kluba	17:09:00
2150-1	Lemoa	LAB Cementos	17:11:00
2150-2	Lemoa	Amets eta Peio	17:13:00
2151	Lemoa	Lemoako Udala	17:15:00
2152-1	Lemoa	Harriketarrak Gazte Asanblada	17:18:00
2152-2	Lemoa	Ganzabal Mendi Taldea	17:19:00
2153-1	Lemoa	Durundi Barri Dantza Taldea	17:20:00
2153-2	Lemoa	Lemoako J.B. Eguzkiza Meabe eskola	17:21:00
2154-1	Lemoa	Lemoatx Guraso Elkarte	17:23:00
2154-2	Lemoa	Arratia Motor Taldea	17:25:00
2155	Lemoa	Lemoako EH Bildu	17:26:00
2156-1	Lemoa	Errota Fundazioa	17:29:00
2156-2	Lemoa	Lemoa "Gure" Txirindulari Elkarte	17:31:00
2157-1	Lemoa	Bediako EH Bildu	17:33:00
2157-2	Lemoa	Bediako Korua	17:35:00

\* Taula hau behin-behinekoa da eta aldaketak egon daitezke.

goak Korrika Txikia egiten. Hilaren 16an, 16:00etan, pankarte egingo dabe eta 17:00etan, egingo dabe Korrika Txikia; ostean, otzara baten zozketea eta 19:00etan, *Bizkarsoro* filma herrian ikusteko aukerea eukiko dabe ubideztarrek. Martiaren 22an, Urkiola inguruan daukie kilometroa Ubidekoek, gauz, eta hara joan aurretik afaria egingo dabe herrian.

Bedian hilaren 22an egingo dabe Korrika Txikia. 17:15ean, pe-toak egiteko batuko dira ume eta nagusiak, eta 18:00etan egingo dabe Korrika Txikia heritik. Ostean, 18:30ean, Bihotz Gorospek *Bihotz-antpuluak* kontzertua eskainiko dau liburutegian, Mikel Inuntziaga "Inun"en kolaborazioagaz. Bediakoek Artean eta Lemoan egingo dabez kilometroak.

Zeanurik be egingo dau galapan 23. Korrikan, heritik hurren dagoan Arratiano jatetxearen inguruko kilo-



metroan. Aurretik izango ditue Korrika Kultureko ekintzak, hilaren 20 eta 21ean. Holan, eguaztanean, hilak 20, 19:30ean, *Bizkarsoro* pelikulea ikusteko aukerea egongo da Kultur Etxean. Hurrengo egunean, 17:30ean, Zaztaparrak Asti Taldearen gidaritzapean, Korrikaren aldeko oihalezko hormairudi handi bat egingo dabe zeanuriztarrek.

#### BEGITUREN LEKUKOA

Arteako Bildosola auzoan dauka

BEGITUK bere kilometroa Korrikan. Aurreko edizinoan, Begitu-lagunen artean egin zan lekukoa eroateko zozketea eta aurtengoan, edozein irakurleri zabaldu gura izan deustie aukerea Zertu Kultur Elkarte-koek. Zozketan parte hartzeako mezu bat idatzi behar da [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera hilaren 19a baino lehen lekukoa eroateko zozketan parte hartu gura dala adierazoz eta izen-abizenak eta kontakturako telefonoa emonaz.

# SAN JOSETAKO BERTSO SAIOA '24


Martxoak 17, 18:00etan

## ONINTZA ENBEITA

## AITOR SARRIEGI

## MIREN AMURIZA

## UNAI ITURRIAGA



Igorreko Kultur etxean



**CAMPUSA**

**Kirol Campusa Igorren Aste Santuan**

**Erredakzioa**

Martiaren 25, 26 eta 27ko arrastietan izango dabe sei eta hamairu urte bitarteko umeek hainbat kirol praktiketako modua. Izena kiroldegian emon behar da eta hilaren 15a da atzen eguna. Egunez egun, zein hiru egunetarako egin daiteke izen-emotea. Kiroldegiko bazkideentzako prezioa eguneko hiru eurokoa eta bazkide ez diranentzako, bost eurokoa da. 30 plaza dagoz.

Igorreko Udalak hiru eguneko Kirol Campusa antolatu dau Aste Santuko oporretarako. Eskoletako aterpean, kiroldegiko frontoian eta igerilekuan egingo dira hainbat ekintza, sei eta hamairu urte bitarteko umeentzako, 17:00etatik 20:00etara. Dibersidade funtzionala daben gaztetxoentzako ekintza aproposak be egingo dira.



**PELOTEA**

**Amaia Aldai MLK Binakako Txapelketatik kanpo**

**Erredakzioa**

Hilaren lehen domekan jokatu ziran Elgoibarren Emakume Master Cup zirkuituaren parte dan Master Laboral Kutxa Binakako Txapelketako finalurreko biak. Amaia Aldai dimoztarrak Arrate Bergaragaz jokatu eban, Gaminde-Etxegari bikotearen kontra. Partidu gogor baten ostean, arratiarraren aurkariak urten ziran garaile 16-22. Beste finalurrekoan, Arrizabalaga-Erasun bikoia izan zan irabazlea, 22-14, Beitia-Mendizabal bikoari irabazita.

**MENDI LASTERKETA**

**Dana prest Kolazino Mendi Egunerako**

**Erredakzioa**

Martiaren 16an, Bedian, Kolazino Mendi Eguneko lasterketak eta martxea jokatu dira. Goizean, 24 kilometroko lasterketa eta 16 kilometroko lasterketa eta martxea egingo dira eta arrastian, aurten lehenengoz, umeentzako lasterketa. Plazan txosnea eta musikea egingo dira egun osoan.

Gutzira 550 lagun inguruk emon dabe izena lasterketaren baten edo martxan parte hartzeako. Tartean dagoz, Onditz Iturbe, Xabier Gonzalez "Errot" eta Unai Intxaurrea.

**Ordutegia**

06:00retatik 07:45era, mendi martxarako dorsalak hartu. 06:00retatik 09:45era, 24 kilometroko lasterketarako dorsalak hartu.

06:00retatik 10:15era, 16 kilometroko lasterketarako dorsalak hartu. 08:30ean, 16 kilometroko mendi martxea. 10:00etan, 24 kilometroko las-

terketa. 11:30ean, 16 kilometroko lasterketa. 14:00etan, sari banaketa. 16:30ean, umeen lasterketa.



**hurreratu egingo zaitu, zatoz**

**urigunera hurbilduko zaitu**

**Bidaiatu urigunera taxian euro baten truke...**

★ bidaia bakoitzeko **...funtsezko zerbitzuetara joateko:**

**Bankua**

**Udaletxea**

**Supermerkatua**

**Farmazia**

**Medikua**

**Egoitza**

**Galdakaoko Anbulatorioa**

**Galdakaoko Ospitalea**

**Lehendakari Agirre 11**  
48140 Igorre (Bizkaia)

**94 471 46 24**  
[www.bideonarratian.eus](http://www.bideonarratian.eus)

**ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## MENDIA

# Onditz Iturbek Espainiako Trail Running irabazi eta Annecy-n jokatu eta Europako Txapelketara joateko aukerak ditu

### Erredakzioa

Onditz Iturbe Igorreko atleteak irabazi eban 21 kilometro eta 1.200 metro desnibeldun proba, 1:57:49 kronoagaz. Garaipe horregaz maiatzaren 31n Annecyn (Frantzia) jokatu eta Europako Txapelketara joateko aukerak ditu. Julia Font valentziarrak eta Nuria Gil Kataluniakoak osatu eben podiuma. Taldeka, Kataluniako taldeak irabazi eban eta Euskadikoa bigarrena izan zan. Gizonezkoetan Alex Garcia murtziarrak irabazi eban Espainiako Trail Running Txapelketea.

Onditz Iturbe lasterketearen hasieratik ipini zan lasterketa buruan. Izan be, bere espezialidadea igoerak diralako eta bae-

kialako aldapan gorako lehenengo 10 kilometroetan ateratako bentajea sano inportantea izango zala lasterketea irabazteko. Holan, lasterketa hasieratik ipini zan aurrean eta distantzia egon zan Iturbe eta bere atzetik joiazan Julia Font, Nuria Gil eta Rosa Maria Lararen artean. Font bigarrenari 35 segundoko aldea atera eutsan igorretarrak.

### Taldeka Euskadi bigarrena

Proba irabazi eta Europako Txapelketako pasea lortzeaz gainera, igorretarraren garaipenari eta beste korrikalarien postu onei esker, Ainhoa Sanz seigarrena izan zan eta Maite Etxezarreta 15.a, Euskadiko taldeak bigarren egin eban, Kataluniakoaren atzetik.



## TXIRRINDULARITZEA

# Podium bi egin ditu Oskar Garrok Europako Txirrindularitza Egokituko Kopan

### Erredakzioa

Oskar Garro txirrindulari igorretarra Casar de Caceres herrian izan zan martiaren 2an eta 3an, European Paracycling Cup-a jokatu. Zapatuan lasterketea eta domekan erlojupekoa jokatu ebazan eta proba bietan lortu eban igorretarrak hirugarren postua. Lasterketea 45 kilometroko zirkuituan egin zan eta erlojupekoa 26 kilometrokoan. Bigarren probegaz agertu da Garro harro, aurreko urtetik, minutu bat eta hamar segundotan hobetu daualako marka.

Holan, "emondakoagaz oso pozik" dagoala azaldu dau txirrin-

dulariak, eta oin, aprilaren 7an, Avilesen jokatu eta Espainiako Duetloi Txapelketarako entrenetan dabil; izan be, bizikletan ho-

## PELOTEA

# Arratiak eta Ezkerraldeak jokatu dabe III. Mugarri Desafioko finala martiaren 17an Otxandion

### Erredakzioa

Bizkaiko lau eskualderen arteko finalurreko saio biak jokatu ostean, ebatzita geratu da pelotako III. Mugarri Desafioaren finala: Arratia vs Ezkerraldea. Finaleko partiduak martiaren 17an, domeke, jokatu dira Otxandion 11:30ean.

Hiru partidu jokatu dabez: lau t'erdian, binaka eta banaka, hurrengo hurrengo. Partiduez gainera, musikea, zozketak eta txosnea egongo dira zabalik eta aurretik, 10:30ean, umeen partiduak ikusi ahal izango dira.

Ezkerraldea martiaren 2an, Igorren jokatu saioan sailkatu zan finalerako, Durangaldea taldeari hiru partidutik bi irabazita (22-0, 15-22 eta 22-16). Arratiarrak barriz, Ubiden martiaren 9an sailkatu ziran finalerako, Lea-Artibai taldea garaituta. Lau t'erdikoa ez ezik, binakakoan zein banakakoan izan ziran irabazle pelotari arratiarrak (11-22, 22-8 eta 22-01).

## FUTBOLA

# Arratiako andrazkoen talde biak eta Lemoako Harrobi taularen goikaldean dagoz

Andrazkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik irabazi egin ebazan euren partiduak etxetik kanpo atzen jardunaldian; gizonezkoen Arratia Ak eta Bk eta andrazkoen Arratia Bk osteraga galdu.



### Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak, aurreko astegoieneko geldialdiaren ostean hilaren 10ean jokatu eban Tajonarren Osasuna C taldearen kontra eta 0-3 irabazi eban. 22 jardunaldiren ostean 37 puntu ditu Arratiak eta seigarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Bizkerre B taldearen kontra hilaren 17an, goizeko 11:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak be 10ean jokatu eban eta Berrio-Otxoa A taldea izan eban aurkari etxetik kanpo. 5-3 galdu eban. 22 jardunaldiren ostean 39 puntu ditu Arratia Bk eta seigarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Sestao River taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 15:30ean.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak etxean jokatu eban Ermua A taldearen kontra hilaren 9an eta 1-0 irabazi eban. 24 jardunaldiren ostean 37

puntu ditu Lemoako taldeak eta zazpigarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua Usansolon jokatu dau Umore Ona A taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoen Arratia A taldeak ez dau lortzean partidurik irabazterik eta atzen jardunaldian Bermeo A taldearen kontra Urbietan jokatu tako partidua 0-3 galdu eban. 24 jardunaldiren ostean 23 puntu ditu Arratia Ak eta hamaseigarren postuan dago sailkapenean, jatsiera postuak puntu bakarrera ditu. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Somorrosto A taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 17:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be galdu egin eban etxetik kanpo jokatu tako atzen partidua Sondika A taldearen kontra, 2-0. 24 jardunaldiren ostean 28 puntu ditu Arratia Bk eta hamahirugarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Ezkurdi A taldearen kontra hilaren 16an, arrastiko 17:45ean.

# Urbihools Kopa jokatu da bagilaren 21 eta 22an Urbietan

### Erredakzioa

Urbihoolsek antolatuta, Arratia futbol taldeko jarraitzaileak, Urbihools Kopa jokatu da bagilean Igorreko Urbietan futbol zelaietan. 16 urte baino gehiago euki behar dira parte hartu ahal izateko eta talde bakotxa 7 lagunez

osotua egon behar da gitxienez. 5 euro ordaindu behar dira pertsonako eta lehen hiru taldeek kopea eta dirua eukiko dabe sari lez; jokalarionen eta "Kopako fraudea" saria be egongo dira. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da Instagram-eko urbihools kontura.



## KONTZERTUA

## Unidad Alavesa taldeak kontzertua joko dau Igorren

## Erredakzinoa

Unidad Alavesa folk-rock estiloko musika egiten dauan talde gipuzkoarra, eta Enemigos del Comercio Andeetako folk estiloko musika egiten dauana Igorrenko Kiñu Gaztetxean egongo dira martiaren 22an, 21:00etatik aurrera, kontzertua eskaintzeko. Sarrerak alde aurretik erosi behar dira Igorrenko Herriko Tabernan.

Aspalditik gura eben Kiñu Gaztetxeok Unidak Alavesa Igorrera ekartea: "bi bider bertan behera itxi behar izan dogun

kontzertua oingon ikusi ahal izatea espero dogu!" dinoe sare sozialetan. Unidad Alavesa taldea, 2016an sortu zan Ataunen eta bost album ditu kalean, *Unidad Alavesa* (2017), *Martin, Martin* (2019), *San Daneito* (2019), *Made in Germany* (2021) eta *Motoki, Zakurreki, Egurreki* (2024).

Enemigos del Comercio Iruñako taldea, Bizardunak taldeko kide ohiek osotuten dabe. Andeetako folk estiloko musika egiten dabe, charangoak eta kenak joz. Euren *En las orillas del putu Arga* entzun daiteke Youtube-n.



## JAIA

## Martiko jaie antolatu dau Zeanuriko Udalak



## Erredakzinoa

Martiko Jaie izenagaz, hilaren 16rako jaia antolatu dau Zeanuriko Udalak. Herri bazkaria, pala eta frontenis partiduak, poteoa eta, gauean, kontzertuak egongo dira.

Jaia eguerdian hasiko da frontoiko herri bazkariagaz. Arrastian, 18:00etatik aurrera, pala eta frontenis partiduak jokatu dira. Izan be, Udalak Maialen Landajo pala jokalaria omenalditxo

egin gura izan deutso. Holan, palan arituko dira Maialen Landajo eta Maialen Rodrigez, Maialen Bengoetxea eta Irati Saez-en kontra. Frontenisean oster, Mikel Izurza eta Imanol Urigoitia, Jokin Larrakoetxea eta Gorka Unzuetauren aurka. Partiduak amaituta, poteo musikatu egingo da herritik.

Eta gauean, kontzertuak egongo dira frontoiko tabernan, Mixerrableak eta Zaparra taldeek joko dabe.

## BERTSO-SAIOA

## Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi Igorren



## Erredakzinoa

Martiaren 17an, 18:00etan, sanjosetako bertso-saioa izango da Igorrenko Lasarte Aretoan. Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, puntako bertsolariak hartzen dabe parte urtero udabarri ateetan egiten dan bertso-saio honetan. Miren Amurizak, Onintza Enbeitak, Unai Iturriagak eta Aitor Sarriegik osotuten dabe aurtengo kartela.

Miren Amuriza Plaza (Berriz, 1990) bertsolaria eta idazlea da. Bertsolari Txapelketa Nagusian lautan egon da, bitan finalaurrekoetan, 2009an eta 2017an, eta Bizkaikoan finalista izan da lau bider. Kazetaritzeari jagokonean, kolaborazioak egiten ditu Berrian eta Anboton. *Basa* (Elkar, 2019) da bere lehen eleberria.

Onintza Enbeita Maguregi (Muxika, 1979) 2018ko Bizkaiko

## ERAKUSKETEAK

## Euskal Herria eta Hemingway erakusketea Igorrenko Kultur Etxean

## Erredakzinoa

Martiaren 15etik aprilaren 15era, *Euskal Herria eta Hemingway* erakusketea ikusteko aukerea egongo da Igorrenko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Edorta Jimenez idazlea da erakusketearen komisarioa.

Ernest Hemingway AEBko idazleak, ia 40 urtean zehar, Euskal

Herriko kultura eta jenteagaz euki eban loturearen barri emoten dau erakusketa honek. Bertan biltzean dira objektuak, argazkiak, ikus-entzunezko materiala, idatziak eta abar.

Hemingway-ren laguna izandako Martha Gellhorn-en *Night Before Easter* narrazioaren euskerazko lehenengo edizioa, *Pazko Bezperako Gaua*, be aurkeztuko da.



Bertsolari txapelketa izan zan. Bertsolaria izateaz gainera, kazetaria be bada eta hainbat hebidetan egin ditu kolaborazioak: Euskaldunon Egunkarian, Berrian, Argian, Bizkaiko Hitzan, Bizkaia Irratian, Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan, besteak beste. Diputadua be izan zan Espainiako gorteetan 2012tik 2016ra.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza (Durango, 1974) Bertsolari Txapelketa Nagusian sei aldiz izan zan finalista eta bitan Bizkaiko txapelketa. Bertsolari txapelketak itxi ebazan baina ez bertso-saioak eta askotan izaten da Arratian. Artista multifazetiko, musikaria, antzerki eta zinemako gidolaria eta komikilaria da. 2017an, Igor Elortzagaz batera idatzitako *Francoren bilobari gutuna* antzezlanaren gidoiak Donostia Antzerki Saria irabazi eban. Gara egunkariko eguneroko zinta grafikoaren egilea da Zugazart izenagaz, eta Argia aldizkariako Prentsa Saria irabazi eban horreekaz.

Aitor Sarriegi Galparsoro (Beasain, 1976) bertsolaria, gaitzartzailea, irakaslea eta kultura eragilea da. Informatikako Ingeniaritza ikasi eban eta Matematika irakasle egiten dau behar. 2011n Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi eban, eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko lau finaletan parte hartu eban 2017an txapelketak itxi ebazan arte.

## IPUINAK

## Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Lemoan egongo da

## Erredakzinoa

Martiaren 20an, 18:00etan, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria *Argi ibili* 6 eta 9 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketea eskainiko dau Kotxepin Kultur Etxean. Kontalaria, *Argi ibili* izenpean erreperitorio desbardinak eskaintzen ditu umeen adinera egokituta.

## Ixabel Agirresarobe

Ixabel Agirresarobe Arzallus (Usurbil, 1971) aktorea eta ipuin kontalaria da. Antzerki ikasketak egin ebazan Donostiako Antzerki eskolan eta umeentzako kale antzerkian ibili izan da Hankagorri eta Goringo taldeakaz. Beste batzuen artean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanen hartu eban parte. 1991tik ipuinak kontetan ditu eta ETB1eko Ipupomamua saioan hartu eban parte.



## AREATZA MUSIK & BEER

# Areatzan joko daben beste bost talde iragarri dabez

Erredakzioa

Aurtengo Areatza Musik & Beer jaialdiak, rocabilly, rock & roll, blues eta garaje rock soinuak hartuko ditu bere 2024ko egitarau zaballean. Soinu honeen erakuslerik nagusienak Areatzan ikusteko aukerea izango da maiatzaren 31 eta bagilaren 1ean egingo dan jaialdian. Zezeilean BEGITU iragarritako 3 taldeez gainera beste 5 talde aurkeztu ditu antolakuntzeak.

Espainiar estaduan rocabillyaren erakusle nagusia den Al Dual musikaria barikuko saioan ikusi eta entzuteko aukera izango da. Al Dual, 2018an, AEBko Rocabilly Hall of Fame ospetsuko parte izatera pasau zan eta urte berean Ameripolitan Music Awards-eko artista onenaren saria jaso eban, rocabillyaren historian sartuz. Al Dual, *Reel to Reel*, atzen diskoaren aurkezpena egingo dau Areatzan. "Proposamen musikal elegante eta fina" dinoe antolakuntzakoek.

Rock & roll-aren barruan Espainiako talde bi aitatu behar doguz: Los Sex eta Montana Stomp. 2022an Motley Crüe eta Def Leppard taldeen teloneru izandako bira ospetsuaren ostean Madrilako Los Sex taldeak 2023an publikautako lan barrien aurkezpena egingo dau: *Bailando hasta el suelo* eta *Caramelos*. Bestetik, Montana Stomp taldea, Susana

Colt abeslariaren ahots indartsuan oinarriturik, "estaduko zuzenkorik indarstuena" ekarriko dau: gitarrak, tekladuak, AEBko hegoaldeko rock-aren oinarria eta ahots gogorra. "Espainiar estaduko rockaren adierazle eder bi gurean".

Frantziatik atzen urteetako blues musikearen adierazle nagusietariko be hurbilduko da: "Leanwolf handia". 2024ean publikautako *Limbo* diskoaren aurkezpen bira Areatzatik pasauko da. Jeff Beck edo Gary Moore gogora ekarriko dauz Leanwolf gitarra-jole eta abeslariak.

Azkenik Himalayas, Cardiffetik datorren talde gaztea. Himalayas taldea, bere rock eta garage rock doinuakaz, estadio handiak betetzera deituta dagoan taldea da. Europako jaialdi handienetan parte hartu eta gero, Areatzan, 2023an argitaratutako *From Hell to Here* diskoaren aurkezpena egingo dau. 2024ean Foo Fighters taldeagaz batera Cardiffen joko dabe. Euren atzen lana AC/DC taldeko Brian Johnson "handiagaz" konposatu dabe.



## MAGIA

# Hodei magoaren Sentsazioak ikuskizuna Igorren

Erredakzioa

Hilaren 21ean, arrastiko seiretan izango da emonaldia Lasarte Aretoan. Sarrerea doban izango da.

Inguratzen gaituan teknologia-aren analisia magiaren ikuspuntutik begiratura egiten da saioa. "Isiltasuna sortzean da, iluntasuna heltzean da. Zure besaulkian emonaldia hastea itxaroten dozun bitartean hurrengo orduan biziko dozuna imajinatzen hasten zara. Oihala zabaltzen entzun dozu eta momentu zehatz horretan... Telefono mobikor bat jotzen hasten da! Benetan? Oin? Hodei magoak ikuskizun barri bat aurkezten dau non, hari bezala, teknologia barriak aztertzeke erronka onartu dau. Gauzak hainbeste aldatu dira, oin smartphone bategaz besapean jaioten garela" dino sinopsiak.



## ANTZEZLANA

# Bihar arte soilik antzezlanaren egongo da Igorreko Lasarte Aretoan

Hilaren 16an, arrastiko 20:00etan

egongo da, Erre Produksioak-ek

Arriaga Antzokiaren laguntzeagaz

produzidutako *Bihar arte soilik*

antzezlanaren ikusteko aukerea Igorren.



Erredakzioa

David Caiña da obra honen egilea, Gorka Minguez zuzendaria eta Kepa Errastik itzuli dau. Antzezle lanetan, Lorea Intxausti, Nerea Elizalde, Albar Cirarda,

eta Mikele Arizkorreta arituko dira.

16 urtetik gorako gazteentzat dago zuzenduta batez be obra hau, bertan, Aitziberrek lau personarentzako bidaia irabazi dau supermerkadu bateko zozketan, Karibeko konpleju turistiko batera. Honeek dira bidaira konbidatzen dituanak: Olatz, bikotekidea; Ilargi, Aitziberren eta Olatzen laguna, eta Ekaitz, Ilargiren laguna, atzen momentuan konbidaua, Ilargik mutil-laguna desleiala izan jakola jakin ostean. *Bihar arte soilik* lanak ikuspegi komiko batetik baina angelu emozionala ahaztu barik, hartu-emon irekiei eta sexualidadea ulertuteko modu barri buruz egiten dau berba. Gurea betirakoa da edo bihar arte soilik?

Bazkideek 6 euro ordaindu beharko dabez eta bazkide ez diranek 8 euro.

## DUNBA

# Ikasbidaia

Arratia BHlko Joanes Aratz Zabala, Liher Cabello eta Bihotz Lekuona. Batxilergo llo ikasleak

Aurtengo ikasbidaiaren, Batxilergo 2ko ikasleok lau herrialde bisitatu doguz: Txekiar errepublikea, Hungaria, Austria eta Eslobakia. Urte osoan zehar, bidaia ordaintzeko dirua lortzeako hainbat ekintza egin doguz; esate baterako, jolas-orduetan bokadiloak eta sandwichak, eta herri azoketan janaria edota erifak eta boltsak saltzea. Horrezaz gainera, bailarako herrietako hainbat ekintzatan parte hartu dogu, Arratiako Maratoi Txikian, adibidez; eta EITBko hainbat programatar joan gara publiko moduan.

Lehenengo, Praga bisitatu genduan. Hegazkinetik jatsi, autobus baten sartu eta hotelera gauzez ailegatu ginduan. Lehenengo gau gogorra

pasau ondoren, gosaldia eta autobusean igon ginduan barriro, turismo gidariakaz batera. Pragako kale eta monumentuak ezetu genduzan, baina danetik txundigarriena Pragako erloju astronomikoa izan zan.

Hurrengo egunean, Txekiar errepublikako beste uri batera joan ginduan: Karlovy Vary-ra. Karlovy Vary uria ia lerro zuzen bat dan uri bat da. Uriaren erditik erreka bat igaroten da, uriaren formek eta eraikinen koloreek xarma berezi bat emoten deusie uri txiki honeri.

Hirugarren egunean Budapestterantzako bidea egin genduan, eta Bratislavan geldialditxo bat egin genduan. Han, Bratislavako gaztelu izugarria ikusi genduan, historiaz betea.

Astearen erdirako Budapestengozan, oindino pilak kargautu eta pilo bat plan egiteko gogoagaz,



honen artean pelikula batetik ateratako termak bisitetea, eraikin esanguratsuak ikusi, barbarako kongresua edo heroien plaza eta zelan ez hungariar parrandea ezetu behar genduzan. Ruin bar izeneko

taberna batzuen kontzeptua entzun eta gero, gau haretan bertaratu ginduan ezetutera.

Atzen uria ezetuteko unea heldu jakun, Vienara heldu ginduan pieza batez, zorionez, eta jada pilak mi-



nimoetan egozala igartzen zan, parrandan joateko gogoak eta turismo gidariei egiten geuntsen kasua oso baju egozan-eta. Halanda be, Vienako kaleetatik galtzean bere eraikinakaz liluratuta geratu ginduan eta liburutegian sartzean danak merezidu izan ebala pentsau genduan.

Algara ederraz hau guztia egin genduan eta ajea izanda be helburuak lortu genduzan kasu minimoa eskainiz turismo gidariei. Janariak, bariz, gure arreta guztia eroan eban: danetarik jan genduan inoz pentsauko ez geunken lekuetan, barre ugari bota genduzan leku guztietan eta garrantzitsuenan, hegazkinak danok sano eta salbu ekarri ginduzan Bilbora bueltan zezeilaren 11 baten.

## AGENDEA

MARTIAK 15  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etan, *Emakume mugimenduen erantzun tresnak* ikastaroaren lehenengo saioa, Idoia Eizmendi eta Emagin alkartearen eskutik, Kultur Gunean.

## AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

18:30ean, *Bizkarsoro* filma udaletxeko areto nagusian.

Hilaren 25era arte edo lekuak amaitu arte, Peña Gorbeako Gurutzea Athletic Clubek, Athletic-ek Sevillan jokatu dauan Kopako finalera joateko autobusean izena emon daiteke. Prezioa 150 euro personako eta lekua gordetzeko 50 euroko Bizum-a egin behar da 608 287 249 zenbakira.

## ARTEA

19:00etan, Korrikaren omendua, Azterketak Euskaraz kolektiboa zer dan erakusten dauan *Oihaletxea* dokumentala Kultur Etxean.

## ARRATIA

Eingo eskoleak hilaren 24an Debara egingo dauan txangorako izen-emotea Igorren eskolako lokalean.

Arantzazu, Areatza, Dima eta Igorreko ludoteketan Korrikagaz lotutako eskulanak.

## BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizatu da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Jaietako Kartel Lehiaketak. Lanak apirilaren 14ra arte aurkeztu daitezke liburutegian.

16:30etik 19:30era, atzen eguna, bagilaren 25etik 28ra izango dan *Adimen emozionala* ikastarorako; garagarriaren 1etik 12ra izango diran Txiki Txoko eta udalekuearako; garagarriaren 13tik 19ra izango dan Bediako Uda Gaztean eta garagarriaren 15etik 24ra izango dan Ludosport-erako izen-emoteak zabalik liburutegian.

18:00etan, Ainhoa Insunza Garcia kirol medikuaren berbaldia *Entrenamentu ikusezina kirol medikuntzan* liburutegian.

## DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Agortu arte, liztor asiatiakoaren kontrako tranpak bananduten dira udaletxean.

Hilaren 22ra arte, udalekuearako izena emon daiteke *kultura.dima@bizkaia.org* helbidean. Udaleku ibiltariak 2006 eta 2020 bitartean jaiotakoentzat garagarriaren 8tik 12ra izango dira; udaleku itxiak, 2006 eta 2012 bitartean jaiotakoentzat, garagarriaren 15etik 19ra eta udaleku irekiak, 2012tik 2020ra bitartean jaiotakoentzat, garagarriaren 1etik 5era.

## IGORRE

Astelehenetik eguenera liburutegia

zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela eguenera zabalik Kultur Etxean.

Apirilaren 15era arte, *Euskal Herria eta Hemingway* erakusketea Kultur Etxean.

Bagilean jokatu dan Urbihoos Koparako izen-emotea zabalik. 16 urte baino gehiago euki behar dira eta taldea 7 lagunez osotua egon behar da gitxienez. 5 euro ordaindu behar dira personako. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da Instagram-eko *@urbihoos* kontura.

Martiaren 25, 26 eta 27an izango dan Kirol Campusean izena emoteko atzen eguna. Kiroldegian.

Bonodenda kanpaina. 10:30etik 12:30era astelehen eguazten eta barikuetan, eta 18:00etatik 20:00etara martitzen eta egueneran erosi lekiez bonuak (10 euroko prezioan eta 15 euroko balioa daukienak dendan) Igorren erroldatutakoek Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan.

18:00etan, *Anbotoko Mari* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoran.

Ernairen Gazteon eskutik loratu da udaberriaren aurkezpena. 18:30ean, dinamika politikoa eta gazteon eskutik aurkezpena; 19:30ean, arrakada tailerra; 22:00etan, Mj Mamarrateo. Axular Herriko Tabernan.

## LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela eguenera Kotxepinen zabalik.

Atzen eguna, komertzioetan 5 eurotik gorako erosketak egiteagaitik, Korrikaren 30 pack-en zozketan parte hartzeako.

20:00etan, Aitor Urkiza eta Iker Alvarez Harribitxi taldekoen *Deiadar* kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

## UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestroi Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik *kronoak.com* helbidean.

Hilaren 22an egingo dan Korrikako afarirako izen-emotea herriko tabernako orrian.

## ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat

goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik eguenera. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

## ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Apirilaren 15era arte, Zeberio Harana Mendi Martxarako izen-emotea *www.zirkuitua.com* webgunean. Luzea: 48 km eta 2.400 metroko desnibela; ertaina: 24 km eta 1.300 metroko desnibela; laburra: 16 km eta 600 metroko desnibela.

MARTIAK 16  
AREATZA

10:30etik 15:00etara, Nekazaritzako Elikagaien Produktuak eta Artisautza Azokea Gudarien Plazan. Eguraldi txarra bada eskolako aterpean; 12:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua plazan (eguraldi txarra bada eskolako aterpean); 13:00etan, Kittu taldeagaz kalejireia herrian zehar.

23:00etan, St Patrick's Day, Tequila Moonrise taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

## BEDIA

Kolazinoko Mendi Eguna. 08:30ean, martxea; 10:00etan, 24 km-ko lasterketa; 11:30ean, 16 km-ko lasterketa; 16:00etan, umeen lasterketa.

## IGORRE

20:00etan, antzerkia *Bihar arte soilik* Lasarte Aretoran.

## LEMOA

Korrika Kulturala Gaztetxe aurreko plazan. 13:00etan, herria apainduz poteo musikatu eta *Harro Herri* erakusketea; 15:00etan, bazkari herrikoia baktzak etxetik eroandakoagaz; 17:00etan, Azterketa parodia eta *Oihaletxea* dokumentala; ostean, poteoa.

## UBIDE

Korrika Txikia. 16:00etan, pankarta prestatu; 17:00etan, Korrika Txikia herritik; 18:30ean, otzarearen zozketa; 19:00etan, *Bizkarsoro* pelikulea.

## ZEANURI

Martiko jaiak. 14:30ean, herri bazkaria frontoiko tabernan; 18:00etan, pala partidua Maialen Landajo eta Maialen Rodrighez vs Maialen Bengoetxea eta Irati



## Bihotz Gorospek kontzertua eskainiko dau Bedian

Martiaren 22an, arrastiko 18:30ean, Bihotz Gorospek *Bihotz-anpu* luak kontzertua eskainiko dau Bediako liburutegian. Batez be berak sortutako kantuak entzun ahal izango dira bertan; akaso, baita Igo-rreko kantautorearentzat esanguratsua izan dan bersinoren bat edo beste. Mikel Inuntziaga, "Inun"en kolaborazinoa eukiko dau.

2021ean hasi zan Gorospe *Bihotz-anpuluak* bildumako kantuak zuzenean emoten eta ezagunak dira kantuok publikoarentzat. Izan be, hainbat zuzeneko emonaldi egin ditu eta bere Youtube kanalean be entzun daitezke. Kontzertua intimoa da, formato txikiakoa.

Saez; frontenis partidua Mikel Izurza eta Imanol Urigoitia vs Jokin Larrakoetxea eta Gorka Unzueta; ostean, Bafle poteoa; 22:00etan, kontzertuak frontoiko tabernan: Mixerableak eta Zaparra.

## MARTIAK 17

## ARTEA

12:00etan, Korrika mosaikoa eta argazki kolektiboa egitea.

## DIMA

10:30ean, Bizkaiko Eskolarteko Zesta Punta D topaketea. 10:30etik 11:30era, ume eta gaztetxo mailako partiduak; 11:30etik aurrera, ate irekiak. Frontoian.

## IGORRE

18:00etan, San Josetako bertso-saioa Lasarte Aretoran. Bertsolariak: Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi.

## LEMOA

09:30ean, Zuhaitz Eguna Pagotxuetan (511 m). Eskoletan.

## ZEBERIO

07:45ean, Austarri Mendi Klubaren urtekerea Kripan-San Tirso-Bernedo. Plazan.

## MARTIAK 18

## LEMOA

18:30ean, Jai Batzordea Gaztelekuan.

## MARTIAK 19

## LEMOA

18:00etan, Berdintasunerako herritarren gunearen 4. saioa Kotxepin Kultur Etxean.

## MARTIAK 20

## ARTEA

Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta, Bilboko portura txangoa.

18:00etan, Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako formazio saioa, *Contra la banalización del feminismo* liburua lanketea Maria Gorosarri egileagaz Kultur Etxean.

## LEMOA

18:00etan, *Argi ibili* umeentzako ipuin kontaketea Ixabel Agirresaroberen eskutik. Kotxepin Kultur Etxean.

## ZEANURI

19:30ean, *Bizkarsoro* pelikulea Kultur Etxean.

## MARTIAK 21

## IGORRE

18:00etan, Hodei magoaren *Sentsazioak* ikuskizuna Kultur Etxean.

18:30ean, Ahoztar Zelaietaren *La Ertzaintza que viene* liburua aurkezpena Axular Herriko Tabernan.

## ZEANURI

17:30ean, oihalezko hormairudi erraldoia plazan Zastaparren eskutik; ostean, txokolate danontzat.

## MARTIAK 22

## ARANTZAZU

15:28an, Korrika; 21:00etan, Zuku eta otsoa musika saioa. Herriko Tabernan.

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Emakume mugimenduen erantzun tresnak* tailerreko saioa. Kultur Gunean.

## AREATZA

14:55ean, Korrika. Ostean jokoak eta tailerrak umeentzat; 18:30ean, DJ Naroa Gudarien Plazan.

## ARTEA

14:30ean, Badator Korrika, Korrika herritik; 16:00etan, ludotekea plazan; 17:30ean, umeen euskal jantzak; 18:30ean, taloak; 19:00etan, Kilometrokantu.

## BEDIA

17:15etik 18:00etara, Korrika Txikirako peto tailerra; 18:00etan, Korrika Txikia; 18:30etik 19:30era, Bihotz Gorosperen kontzertua liburutegian, Inun-en laguntzeagaz.

## DIMA

14:30ean, Gaztelekuko gazteak eskolara joango dira arpegiak margotera; 15:50ean, Korrika; 16:30etik 18:30era, umeentzako puzgarria, arpegiak pintetako txokoa eta Korrikako txapak egiteko txokoa; 18:30etik 19:00etara, txokolatea; 19:00etatik 21:00etara Sama Siku txarangea.

## IGORRE

15:35ean eta 16:27an, Korrika. Pasau ostean, txarangea; 16:30ean, taloak autobus geraleku ostean; 17:30ean, erresina tailerra gazteentzako Kultur Etxean.

21:00etan, Unidad Alavesa eta Enemigos del Comercio taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

## LEMOA

17:00etatik 17:33ra arte, Korrika. 17:20ean, pintxoak, herri-kirolak eta Durundubarrigaz musika eta jantzak plazan, trikiak eta Elkartruketako gazteek janaria salduko dabe; 21:00etan, Kittugaz erroberia.

## UBIDE

Korrika afaria Herriko Tabernan.

## ZEBERIO

13:30ean, Korrika herritik pasau; 15:00etan, bertsoak eskolako umeek; 15:30ean, bazkari herrikoia baktzak berea eroanda; 16:30ean, karaokea; 17:00etatik aurrera, txosnea, Guraso alkarteak ipinita; 19:00etan, Orkresta Elektrotxaranga; 19:30ean txistorra-jana Austarri Kultur Elkartearen eskutik.

## MARTIAK 23

## AREATZA

10:00etan, eleiza portiku parean Makalara igoteko. Zuhaitz Eguna. Parte hartzeako izena Maitane Campori (627 021 082) edo Xabier Iturriagari (646 355 550) emon hilaren 20ra arte.

## MARTIAK 24

## ARTEA

10:00etatik 15:00etara, merkadua plazan. 13:30ean, Juanjo Navas flamenco laukotearen kontzertua Herriko Bentan.

## IGORRE

17:00etan, zinea, *Katak la pequeña ballena*; 19:30ean, *Valle de sombras* Lasarte Aretoran.

## MARTIAK 29

## ARANTZAZU

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Emakume mugimenduen erantzun tresnak* tailerreko saioa. Kultur Gunean.



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Oلابارri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

#### GARAJE PARTZELEA ALOKAIURUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzearea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

### BASERRIA ALOKAIURUAN EMOTEN DOT

Baserría alokairuan emoten da Zeanuriko Ogarabeti auzoan. Interesdunek zenbaki honetara deitu: 656 734 202.

### LANA

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

#### ZAINTZAILE BILA

Edadeko gizon bat zaintzeako norbaiten bila gabiz. Interesdunek deitu: 747 437 479.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**


## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Bihar arte soilik** antzezlanerako.

Alasne Artetxe (Artea)  
Nahia Aurrekoetxea (Dima)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **sanjosetako bertso-saiorako.**

Maitte Bernaola (Artea)  
Alex Agirre (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 IGORRE  
94 631 52 26

**BIZARGINAK**  
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA  
94 607 78 33  
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igoerre (Bizkaia)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 36  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**begitu**  
eus

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-49-54

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejate txea@hotmail.com

**begitu**  
eus

begitu

# BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

## 2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte**a Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuota:  40€  60€  80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.



Herri hau  
sortzen segi  
dezagun  
euskaratik eta  
euskaraz!



ZEAN  
ZURI